

# Noaia !!

www.noaia.com



Pilota zein pala txapelketek  
badute irabazlerik

Asier Azpiroz zubietarra,  
etorkizun handiko bertsolari gaztea



**DIGITAL+**



**antenas Telemar**

1969. urtetik gipuzkoarrei zerbitzua ematen.  
Telekomunikabideetan goi mailako teknikariak.

Orain Usurbilgo erdigunean  
Ltd-ko kanal berri hauek  
ikusteko aukera ...





elkano kalea 13 HERNANI

Tifnoa. 943 55 33 99  
info@antenastelemar.com




**FRANTSES KLASEAK**



**Hou la la!**

**ANIMA ZAITEZ!!!**

**EKAINEN PARISERA  
GOAZ 2011 IKASTURTEKO  
IKASLEAK!!!!**

**Frantsez pixkat bazenekien baino  
ahaztu bazaizu eta berreskuratu  
nahi baduzu...edo zero mailatik  
frantsesa ikasi nahi duzu**

**AUKERA EDERRA DAUKAZU!  
KLASEAK IRAILEAN HASIKO DIRA!!!**

**609 75 47 99 Usurbil**



**Otar-Goxo**  
*Elkagaiak*








**Hirukide**

Hirukide elkarteko kide diren  
familientzat... **%5 EROSKETA GUZTIETAN!**

harategia · urdaitegia · frutak · barazkiak · kontserbak · berezitasunak

Zubiaurrenea, nº2 • ☎ 943 36 55 81 • 20170 Usurbil

Albiste iruditan!

## Udako ordutegia indarrean, bus-taxi zerbitzuan

**K**axkoa landa eremuarekin lotzen duen bus-taxi zerbitzuko ordutegia aldatu egingo da uda honetan. Usurbilgo Udalak eta Behemendik elkarlanean, duela ia hiru urte martxan jarri eta bereziki mugikortasun arazoak dituzten herritarrei zuzendua dagoen doako zerbitzua murriztuko da uztailan. Astelehenetik ostiralera, goizez bakarrik, hirutan igaroko da, Kaxkoa, Kalezar, Aginaga, Txokoalde, Urdaiaga, Santuenea, Zubieta eta Txikiertitik; 7:30etan, 10:30etan eta 13:00etan, Kaxkotik abiatuta. Arratsaldetan ez da egongo bus-taxirik. Abuztuan zerbitzua guztiz etengo da. Irailean, ohiko ordutegira itzuliko da bus-taxia. Informazio gehiago telefono zenbaki honetan jaso daiteke: 630 643 596.



ABUZTUAN EZ DA BUS TAXIRIK IZANGO.

## Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	DYA	943 464 622
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Gurutze Gorria	943 272 222
Udaltzaingoa	943 361 112	Etumeta AEK Euskalategia	943 372 001	Emergentziak	112
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Gure Elkartea Zahar Egoitza	943 371 751	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Bake Epaitegia	943 372 336	Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Udarregi Ikastola	943 361 216	Taxia (Angel)	607 928 770	Banco Popular Español	943 370 411
Haur Eskola	943 374 061	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466	BBVA	943 377 155
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Eusko Tren	943 470 976	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Hastapen tailerrak	943 360 465	Anbulategia	943 362 013	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
KZgunea	943 570 999	Oa botika	943 376 076	Telefonica	1004
Oiardo Kirolegia	943 372 498	Iturralde botika	943 363 395	Euskaltel	900 840 840

**Noaua!**

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / [elkartea@noaua.com](mailto:elkartea@noaua.com) / [www.noaua.com](http://www.noaua.com)

Jendurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Alaitz Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, [publizitatea@noaua.com](mailto:publizitatea@noaua.com).

Erredakzio kontseilua, [erredakzioa@noaua.com](mailto:erredakzioa@noaua.com): Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbietta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Maider Makazaga, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai, Belmonte Auzo Elkartea eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



LUIS ARANALDE

## Iraultza berri baten atarian?

**B**enetako demokrazia eskatzen ari direnen protestek gero eta oihartzun handiagoa dute Europan zehar, Madrillgo la Puerta del Solen hasi baldin baziren ere; 57 hiritara iritsi da. Espainiako mugak ere gaingitu ditu eta Portugal, Frantzia, Suedia eta beste nazio askotan ikusi ditugu mugimenduaren jarraitzaileak. Sare sozialek rol handia izan dute gertakari honetan.

Beharrezkoa da benetan gazte batzar horietan parte hartu dutenek proposatutako hainbat helburu kontuan hartzea. Eskakizun nagusienak: lanerako eta etxebizitzarako eskubideak egiaz aitortuak izatea, kalitate hobeko zerbitzu publikoak eskaintzea, erreformak bultzatzea fiskalizazio sozializatuago baten alde, klase politikoen pribilegio bidegabeak errotik ezabatzea, ustelkeriaren aurkako neurriak hartzea. Azken batean, kapitalismo basati honek eragindako esplotazioa salatu nahi dute, besteak beste. Hankaz gora jarri nahi dute dena, batik bat, politikoak, bankero handiak, sasi demokrazia iraingarria hau, sistema neoliberal nazkagarri osoa.

Stéphane Hesselen "Haserretu zaitezte" liburuxkak piztu du Benetako Demokrazia Orain gorpuztu den Maiatzaren 15a mugimendua. 1917an jaioa da Stéphane Hessel, 93 urte ditu. Nazien hatzaparretan erori arren, bizirik atera zen; Giza Eskubideen Azalpen Unibertsala idatzi zuen Baionako René Cassinekin batera, Bakearen Nobel Sarirako proposatua izan da. "Haserrearen arrazoiak edukitzea opa dizuet guztioi. Polita da hori. Zerbaitek sumindura eragiten dizunean, niri nazismoak probokatu zidan gisa, orduan militante indartsu eta konprometitu bihurtzen zara. Axolagabekeria da jarrera ezkorrena, okerrera. Zuen borrokak baketsua izan behar du; indarkeriak bizkarra ematen dio esperantzari. Negoziazioa da zapalketak desagerrarazteko bidea".

Duela gutxi beste foileto bat idatzi zien: "Konprometitu zaitezte". Honela dio: "Zuei dagokizue, gazteok, mundu

berri bat sortzeko pistak irekitzea. Ez mundu onena lortzeko, baina bai mundu bideragarri bat; izan ere, haserre hutsak ez du inongo zentzurik; konpromisoa behar du haserreak".

Matxinatu hauen manifestazioetan laguntasuna eta anaitasuna nabarmentzen omen dira. "Se respira buen rollito", orain esaten den bezala. Horrez gain, ilusioa da berezitasun nagusia: besteekin ideial berak konpartitzeko ilusioa, ideologiak gaingituz (eskuindarrak, ezkertiarak, abertzaleak.. guzitik dago) denak elkartuta eskakizun bera egiteko ilusioa. "Herriak bere eskubideak aldarrikatzen ditu, iraultza moral berri bat sortu da", Jose Manuel Vidalen (Religión Digitalaren zuzendaria) aburuz.

Slogan politikak ere irakurri ahal izan ditugu: "Hau ez da krisia, estafa baizik". "600 euro kobratzea da benetako biolentzia". "Ez dago nahikoa ogi horrenbeste txorizorentzat" eta abar.

Protesta hauen ikonotako bat Domingo Edjang Moreno ("El Chojin" ezizena hartu zuen eta japoniar marrazki batzuen jainko bakegilea esan nahi du), rap zalea izan da. Berak jarri die letra eta musika zenbait abestiri. "Únete a nosotros" kantan dio: "Todos queremos pan / tiran migajas y se divierten viéndonos pelear. / Yo propongo un juego nuevo: / dejar las migas y asaltar la panadería".

Gauzatuko al da mugimendu hau? Mikel Aipuru historia-lariaren ustez, lau baldintza bete behar ditu mugimendu batek arrakasta izango badu: "Liderrak behar ditu, batasun bat izan behar du, jende asko bildu behar du eta konpromiso bat izan behar du".

Goiz da oraindik aurtengo mugimendu honekin gertatuko dena ikusteko. Ez ordea, nahiak izendatzeko, ametsak adierazteko. Gure ekosistema politiko eta soziala garbitu nahi dute. Anestesiaturik zeuden gazte hauek esnatu dira. Gutxienez horretarako balio izan dute kanpaketa hauek eta ez da gutxi.

Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Joxe Piñas - Imanol Ubeda - Unai Agirre - Idoia Torregerai

Ika-mika!

## 17 urte

**E**gunkarien bidez iritsi zaiguk albisteak. Hamazazpi urtetan eraman duken zamaren ondoren Estrasburgon kokatzen den Europako Giza Eskubideen Auzitegiak hiri arrazoi eman izana pozez hartu diagu eta garaipen hau senideekin batera goza ezak.

Izan ere, hi atxilotu eta Usurbilgo Herriak Badaki memorian irakurri dezakegun bezala, basati jipoitu eta atxilotuta hengoela, Espainiako Gobernuaren izenean zegoen ordezkari gorenak, hitz eginiko adierazpen haiek hire errugabatasun presuntzioa urratu izana salatu eta

urte luze hauetan etsi gabe aurrera jarraitu izanak oraindik gozoago egingo zaik edo dik garaipena eta hire ausardia guretzat eredugarri egiten zaiguk.

Ez ezak pentsa hi goraiatzeagatik ari garenik. Bazekiagu ez duala gogoko. Horren adierazle duk elkarrekin LAB sindikatuan bizi izan ditugun une eta urteak. Hik lan egiten duken lantegiko edo beste lantegietako egoeraz izan ditugun eztabaidak. Zer esanik ez kapitalak eragindako krisi honek langilerian duen eragin basatiaz euskal sindikalgin-tzatik eztabaidatu izan eta egin beharko

dugunaz.

Guzti honek, bakoitzaren ezagutza argiagoa eta elkartuagoa egiten digun bezala, eztabaidak batu egiten ziguk eta bakoitzaren lorpenak sendoagotzeko balio dik.

Beraz, Usurbil eta Lasarteko Sindikatuko Delegatuak biltzen dituen Lasarteko LAB Sindikatuko egoitza honetatik Delegatuen izenean Zorionak Patxi eta beti arte.

**Usurbil eta Lasarteko  
LAB sindikatuko delegatuak**

## Bateragune auziko epaiketaren aurrean, adierazpen instituzionala onartu du Udalak

**B**ateragune auziari lotutako epaiketa burutu da egunotan Espainiako Auzitegi Nacionalean. Horren aurrean, adierazpen instituzionala onartu zuen Usurbilgo Udalak, ekainaren 28ko osoko bilkuran.

Hiru puntuko testuan, *Bateragune* auzian inplikaturik dauden kide guztien berehalako askatasuna eta absoluzioa, eta epaiketa politikoak behin betikoz alde batera utz daitezzen eskatzen da, “zabaldutako garai berriari jarri nahi zaizkion oztopoekin amaituz”. Mozioan gaineratzen denez, “Udalak gatazkaren irtenbidea sustatzeko, dagokion jardura instituzionalean urratsak emateko konpromisoa hartzen du”. Adierazpenaren alde bozkatu zuten, Bildu, Aralar, Hamaikabat eta

EAJ-PNV-ko ordezkariak. PSE-EE-ko zinegotzia abstenitu zen.

**Pasa den asteko eraso salatu du Usurbilen Nahi Ditugu taldeak**

Usurbilen Nahi Ditugu elkarteak joan den ekainaren 26an Kale Nagusiko etxebizitza batean izandako eraso salatu nahi du eta elkartasun osoa adierazten die bizilagunei.

NOAUA!ra igorri duten idatzian diotenez, “adituek eta baita bertakoek ere egiaztatukoaren arabera, euskal preso eta iheslariaren etxeratzea eskatzen zuen banderola bat nahita erre izan zen eta, ondorioz, sutea eragin zuen. Zorionez, kalteak soilik materialak izan ziren baina ekintza horren atzean asmo txarra usaintzen dugu. Gure senitartekoen etxeratzea eskatzearen zilegitasuna nabarmen-



EGUN HAUETAN ERREPIKATU DEN IRUDIA DA HAUXE.

du nahi dugu, batez ere, Euskal Herrian normalizaziora eta benetako bakera iristeko gero eta sektore gehiago –gu tartean– lanean ari diren une honetan”.

Bide batez, herritarren konpromisoa eta laguntza behar beharrezkoa dela gogoratu nahi dute idatzian, “presoen eskubideen eskaera ozen aldarrikatzen segi dezatela eskatzen dugu”.

Ika-mika!

## Usurbilgo Euskal Eskola Publikoaren aldeko inkestaren emaitza

**M**aiatzaren 23an bilera egin genuen Sutegin Gipuzkoa Lurraldeko hezkuntza ordezkariarekin. Handik atera zen inkesta bat egitearen beharra. Ordezkariarekin batera prestatu genuen inkesta eta jende artean banatu genuen. Hasiera-hasieratik genuen garbi bi bide jorratu behar genituela, bata ahoz ahokoa eta bestea emailen eta web orrien bidezkoa. Inkestaren helburua, euskal eskola publikoan matrikulatuko liratekeen haurren kopurua, hauen adina eta zein ikastolatik datozen jakitea izan da.

95 haurren gurasoak prest azaldu dira euskal eskola publikoan matrikulatzeko. Hauetatik, %82,10 Udarregi ikastolatik eta gainerako %17,90 inguruetakoa beste ikastola edo eskoletatik datoz. Mailaz ere

galdetu genuen eta emaitza ondokoa izan da: Haur Eskola, 11 haur (%11,58); Haur Hezkuntza, 42 haur (%44,21) eta Lehen Hezkuntza, 42 haur (44,21). Eta azken galderaren erantzun nagusia (%88,42), herrian bertan nahi dela euskal eskola publikoa izan da eta ez beste herri batean.

Hezkuntza Lurraldeko arduradunari azaldu dizkiogu emaitzak. Bere jarrera oso baikorra izan da eta eskaera honi erantzun bat eman behar zaiola esan digu. Epe laburreko helburua 3-12 urte arteko eskola (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza) irekitzea da, 16 urtera arte (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) zabal daitekeena, eskaeraren arabera. Bere aldetik, Udarregi Ikastolako zuzen-

dariarekin eta Mertxe Aizpurua Alkatesarekin egoteko asmoa ere baduela aurreratu digu.

Gure aldetik, ekimen honen sustatzaileen aldetik, Usurbilgo Udaletxean zinegotzirekin bat duten alderdi politikoekin hitz-egin nahi dugu, emaitzak azaltzeko, eta Usurbilen Eskola Publikoa irekitzearen posibilitateaz eta beren jarreraz galdetzeko.

Jakizue, bestalde, inkesta ez dagoela itxita, eta norbaitek erantzun nahi badu eskura lezake epusurbil@gmail.com helbidean. Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu inkesta erantzun dutenei eta laguntzen ari zaizkigun guztiei.

**Usurbilgo Euskal Eskola Publikoaren aldeko taldea**

**ANTXETA**  
taberna-jatetxea  
ogitartekoak  
eguneroko menua  
plater konbinatuak  
EGUZKITZA, 4 · 943 370 344

**ALIPROX**  
Kale Nagusia 10  
☎ 943 361 182  
USURBIL

Kale nagusia, 10  
Telf: 943 37 33 48  
943 37 09 13  
Olindegia - Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**Patri Jatetxea**  
K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

KALEBERRI

IRATI PORTU

## Konturatzera, akabo!



**E**torri orduko joan zaizkigu. Herriko festak zenbakitan utzitakoa neurtzen hasita, etenik gabeko jai giroko lau egunez gozatu ahal izan dugu, 96 orduz alajaina! Goizetik gauera, pentsa zenbat ekitaldi ospatu diren, haur, gazte zein helduei zuzenduak. Haurren Eguna, oilasko biltzaileena, Santixabel bezpera eta uztailearen 2ko ospakizunak... Gauza asko aipa daitezke egunotan bizi izan denaz. Kalean bizi denaz, horretarako baitira herriko jaiak, herrian eta kale giroan murgiltzeko. Aurten, aipagarria egunez eta baita gauez, jai eremu nagusiak diren frontoi zein Dema plaza inguruan, eta txosnetan bizi izan den giroa eta bertan ibili den jende mugimendua.

Nabarmentzeko modukoa, herrira sartzerakoan, kanpandorretik ikus zitekeen Santixabeletako zaindaria, olagarro itxurako maskota. Zenbat lagun talde, eguberrien moduan berriz elkartzeko, koadrilako edo kinto afari zein bazkarien bueltan. Zenbat aurpegieta, ilusioa, poza jaietan murgilduak egoteagatik! Eta zenbat lan egin duten, jaiak behar bezala ospatzeko hilabete luzez jo eta



su zehaztasun guztiak lotzen aritu diren Jai Batzordeko kideek. Halakoak dira Santixabelak. Baina konturatzera, joan dira jada. Ahots urratuen, buruko minen eta nekearen aste hau igarota, ondo ondo pasa dezazuela guztiok hasia dugun uda hau! Datozen Santixabeletarako geroz eta gutxiago geratzen da jada. Herriko festak itzuli zain, baditugu halere, inguruotan nahi adina hitzordu, urte osoko zereginez ahaztu eta udan tarte atsegin bat igarotzeko. Gozatu une txiki-handi hauez!

KALEZAR

INMA BALDA

## Sekula itzaliko ez den sua



**B**ukatu zaizkigu aurtengo San Juanak eta atzetik etorri diren Santixabelak ere bai. Dagoeneko hurrengo jaien zain jarriak gara. Hala omen da Mundua mundu denetik: bukaera batek beste baten hasiera ekartzen duela. Horrela inoiz eteten ez den soka sorgin bat osatuz.

Soka-dantza dantzatu genuen San Juan egunean. Gizaki bakoitza besteari lotuta. Aurrean dagoenari atzekoa lotuko zaio, baina azken hau aurreko izango da beste bat atzean lotzen zaionean. Horrela mugitzen doan soka osatuz. Eta lehena azkenarekin lotzen denean, zirkulu bat eginez, osotasuna hartzen du dantzak: denok bat!

M<sup>a</sup> Karmen eta Juan gure auzotar maiteak, goian beude, orain arte sokan izan ditugu: beraien aurrekoei lotuta auzoko esentzia eman digute, gu atzetik lotuta eraman gaituzten bitartean. Orain guri tokatzen zaigu M<sup>a</sup> Karmenen eta Juanen indarra, berotasuna, argia eta sua gure atzetik datozen transmititzea.

Bizitza den soka-dantza hau ez delako inoiz bukatzen, gu bertan gabiltzan bitartean gurekin izango ditugu M<sup>a</sup> Karmen eta Juan, beraiek bizitzan eraman zuten sua gure artean banatu dutelako. Hori da gure zoria!

SANTUENEA

PAKO AGUDO

## Udaz gozatu

**U**da, azkenik uda. Urte osoa, eguzkia, gau motzak eta magiaz beterikoak, egun luze eta amaigabeak, oporrak, festak eta ilusioz betetzen gaituzten gauza horien guztien zain igarotzen dugu. Egutegian abenduak esaten digu urtea amaitu dela, baina gu gehienon bizimodu honetan udak dirudi urte amaiera.

Gure helmuga bihurtzen da, ikasketak bukatu, laneko ordutegi zorrotzak edota gaurko umeek dituzten milaka eguneroko konpromisoei amaiera ematen dio udak. Ilusio hori gabe ezin bizi, nahiz eta gehienetan ilusio batean bakarrik gelditzen den. Agian ikasketak ez dituzu gairatu eta ikasi behar duzu. Agian krisi amaigabeak jota urte osoa lan egin gabe daramazu. Agian ez dakizu zer egin zure seme-alabek dituzten ordu libreekin. Hainbesteko ilusioa, dobleko desilusioa.

Behar bada urtean zehar ilusio txikiez gozatzen jakin behar dugu, ez dugu "super" uda baten beharra izango. Dena den, hila-bete hauek bizia eta mugimendua sortzen dutela ezin ukatu. Jendea kaleetan ikusteak poza ematen du eta nahi gabe ere ipurdia mugitzera bultzatzen zaitu askotan. Zaila da armailak gertuegi dituen gure frontoi ederra libre topatzea. Besterik gabe, zure uda partikularraz gozatzen saiatu eta irailera arte.



AGINAGA

ANE MANZISIDOR

## Udako txokoak, martxan



Santixabelen osteko aste hau, zenbaitentzat gogorra izango da; ajea, nekea... Jaien osteko ondorioak jasaten ariko dira asko oraindik. San Praixku jaiak urrun samar baditugu ere, aipatu, hurrengo bilera datorren asteazkenean, uztailaren 13an, egingo dugula betiko tokian eta betiko orduan.

Bestalde, aurreko kronikan aipatu nizuen, Aginagako guraso elkarte txokoen prestaketa lanetan zebilela, ba dagoeneko hasiak dira. Aurreko ostiralean, uztailaren 1ean hasi ziren, hil honen amaierara arte luzatuko diren udako txokoak.

Goizeko 9:30etatik eguerdiko ordu batetara bitarte, ludotekan eta frontoian igarotzen dute goiza joko ezberdinetan parte hartuz. Aurreko urteetan bezala, ezin hobeto gainera. Ekintza ugariz gozatzeko aukera izango dute datozen asteotan. Ondoko irudiotan duzue, orain arte aipatutakoaren adibide bat. Ikasturtea amaitu ostean, Aginagako haurrek ere udan badute bai zer eginga, non entretenitua, eta baita elkarrekin, lagun giro ederrean egoteko aukera ere. Ondo pasa guztiok uda hau!



ATXEGALDE

MA JESUS URBIETA

## Abesbatza indartu



Eliza aldera joaten garenean eta koruko abesbatza entzuteko aukera dugunean, oso gustura izaten gara zaletuak. Belarria luzatzen dugu, eta ondoren, jendearen esana izaten da sarritan. Zenbat jазten du koruak elizkizuna! eta asko gozaten da halako ekitaldiekin, festetan, edo hiletetan, edo beste zenbait kontzertu prestatzean. Herriko festak pasa berriak ditugunez, Santixabel egunean urtero bezala, han parte hartu zuen Irriu taldeak, Ramon Udaberen eskutik.

Elizkizun bikaina izan dugu aurten ere, baina esan behar, koru horretako partaideak aspaldian gutxitzen doazenez, eta laguntzeko jende berria hurbilduko balitz ona izan liteke, pixka bat suspertzeko. Beraz, gustukoa baduzue, hurbildu bertara oporrak eta gero.

Hau da, urria aldera, ea indar berritzen dugun denona den herriko parroki edo korua.

Aurten, festak nahiko laburrak izan dira, baina mami-tsuak, suertatu dira beraz. Jendea gustura sumatu da orokorrean. Bejondeizuela. Gazteak lan asko egin dute, beti bezala eta eskertzekoa da. Ondo segi denok!!!

ZUBIETA

DENIS ELORTZA

## Uztak

Izenak izana eman eta uztailak ekarri dizkigu jada letxuak, tomateak, patatak, tipulak, azenarioak eta bestelako barazkiak. Erein eta landatzeko lanari eman diote ordaina gure erriberako lur emankorrek.



Zubieta Lantzen-eko txirrindulariek ere jaso zuten bere uzta Quebrantahuesos proba entzutetsuan. Neguko izerdiak atzean utzi eta Zubietatik joandako txirrindulari guztiek gurutzatu zuten helmugako marra. Zorionak guztiei, ez da makala egin dutena... Horrekin aski ez eta ez al zaigu ba orain txirrindulari horietakoren bat korrika egiten hasi? Urriari Zubietan mendiko duatloia jokatzeak omen da eta batzuk prestatzen hasi dira jada...

Baina hori baino lehen festetako duatloitxo herrikoia ere hemen izango dugu, aurtengo herri jaietako programa sekretuak iazkoaren antzik baldin badu behintzat.

Herri jaietako Komisiokoe, urtero bezala, aurten ere gogor lan egingo zuten negu-udaberrian festak antolatzen eta uztailaren hondarrean jasoko dugu uzta. Ea bada, iazko ezusteak saihestu eta uzta ona jasotzen dugun. Uztail on, irakurle.

# Lehen osoko bilkuran udaletxe barruko egitura osatu da

**U**dal barneko egitura, hau da, batzorde, tokiko gobernu batzarra, edota beste erakundeetan Udalak izan behar duen ordezkariak zehaztu zen, ekainaren 28an burututako legegintzaldi berri honetako lehen osoko ohiko bilkuran. Joan den aste hasieran Sutegiko erakusketa aretoan burutu zen batzar irekian Mertxe Aizpurua alkateak iragarri zuen moduan, udal kudeaketarako makina martxan da jada.

Eguneko gai zerrendako puntu gehienak udal barruko antolaketa, funtzionamendu edota ordezkariak banaketan ingurukoak izan ziren. Honakoak:

## Zortzi batzorde

Udal honek zortzi batzorde informatzaile izango ditu eta bakoitza zazpi kideez osatuko da. Osoko bilkuran onartu zenaren arabera; Bilduko 3 ordezkari, eta Aralar, Hamaikabat, PSE-EE eta EAJ-PNVko ordezkari banarekin. Bildutik iragarri dutenez, batzorde gehienak, arratsalde, 18:00etatik aurrera burutuko dira. Irekiak izango dira, orain arte bezala, eta bilguneotan herritarren parte hartzea bultzatu nahi du Bilduk. Honakoak dira, osatu diren batzorde informatzaileak:

Nekazaritza eta Ingurumena; Hezkuntza, Parekidetasuna eta Garapena; Kultura, Euskara eta Gazteria; Pertsonala, Hirigintza eta Zerbitzuak; Ogasuna eta Kontuen Batzorde Berezia; Osasun eta Gizarte Zerbitzuak; Herritarren Parte Hartzea.

## Hiru zinegotzi liberatu

Hiru udal ordezkari liberatu izango dira legegintzaldi honetan: Mertxe Aizpurua alkatea batetik. Bestalde, Alaitz Aizpurua eta Jone Urdanpilleta, lehen eta bigarren alkate ordeak hurrenez hurren, ere liberatu dituzte.



EKAINAREN 28AN EGIN ZEN LEHEN PLENDIA.

Proposamenarekin desados agertu ziren, PSE-EE eta Aralar. Ricardo Cresporen eta Joxe Ramon Furundarenaren esanetan, dedikazio osoko karguak gehiegi zirela adierazi zuten. Liberazioaren zati bat oposizioak izatea ere proposatu zuen Aralarreko ordezkariak. Alkateak erantzun zioenez, “guk egindako balorazioekin liberazio hauek behar ditugu”.

Bestalde, ordainsariei dagokienez, hiru liberatuek orain arte aritu diren lanetan zituzten soldata bera kobratuko dute udaletxean jarduteagatik. Hamaikabateko bozeramailearen esanetan, hiru liberatuen soldatek altuagoak izan behar lukete. “Norbere eginkizunen arabera, balorazioa egin eta soldata finkatzea” proposatzen zuen Ormaetxeak. Alkateak erantzun zioenez, “hau guretzat ez da lanpostu bat”. Ikuspuntua ez bazen ulertzen, erabakia ere ezingo zuela ulertu gaineratu zuen. Bilduren proposamena gehiengo osoz onartu zen.

## Beste erakundeetako udal ordezkariak

Usurbilgo Udaletik kanpo, beste erakunde edota organuetan Udalak izan beharreko ordezkariak ere ekainaren 28ko saioan zehaztu zen.

Zehazki, UEMA, Eudel, Atallu Industri Sustapena S.A., Euskal Fondoa, Kontseilu Eskolarrak, Behemendi, Añarbe Mankomunitatea, San Marko Mankomunitatea eta Garbitanirako udal ordezkariak osatua geratu da jada. Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiko kontratazioen zentralari atxikitzea ere onartu zen bilkura berean.

## Lau alkate orde

Tokiko Gobernu Batzarreko kideen izendapena ere onartua dago jada. Bilduko Alaitz Aizpurua, Jone Urdanpilleta, Pepe Rivadeneyrak eta Josu Portuk osatuko dute bertako ordezkariak. Horrekin batera, aipatu lau udal ordezkariok izango dira hurrenez hurren, lehen, bigarren, hirugarren eta laugarren alkate ordeak.

## Bost udal talde politiko

Maiatzaren 22ko udal hauteskundeetako emaitzak aintzakotzat hartuta, bost udal talde politikok izango dute ordezkariak legegintzaldi honetan. Udal talde politikoen eraketaren berri eman zen ekainaren 28ko osoko bilkuran. Bildu, Aralar, Hamaikabat, EAJ-PNV eta PSE-EE (PSOE) dira osatu diren udal talde politikoak.



# Alkartasuna Kooperatibaren egoitza berria datorren astean inauguratuko da, uztailaren 16an

**A**lkartasuna Baserritarren Kooperatiba Elkarteak egoitza berria du. Ekaina amaieraz geroztik, Atallu industrialdean kokatzen da saltoki berria. Leku aldaketa ospatzeko inaugurazio ekitaldiak antolatu dituzte Alkartasunakoek, datorren uztailaren 16rako.

Deituak dituzten hitzorduak uztailko hirugarren larunbat goiz eta eguerdian burutuko dira. Eguna aizkolarien saioarekin hasiko da. Dantzarien agurra, eta bertso saioa ere ospatuko dira, baita gizon proba ere. Trikitilariak girotuko dute inaugurazio goiza, eta noski, jan edana ere izango da.

## Herritar denei irekia

Alkartasunakoek ospakizun hauetara gerturatzeko gonbita luzatzen diete herritarrei. Aipatu moduan, egoitza berriaren parean burutuko dira ekitaldiak, Atallun, 26. zenbakian.

Hauxe da Alkartasunakoek prestatu duten egitaraua.

## Uztailak 16 larunbata Atalluko eraikin berrian

**11:00** Aizkolariak.

**12:00** Dantzarien agurra, bertsolarien saioa.

**12:45** Gizon proba; Orioko gizon proba taldea Etxetxoko behorraren kontra, 1.000 Kg-ko harriarekin.

Txekor errea eta txorizo egosia banatuko dira dohain. Sagardoa, ardoa eta muztioa ere emango dira.

Trikitilariak arituko dira goiz osoan.



ATALLUN DAGO ORAIN ALKARTASUNAKO SALTOKIA.

## 103 urte eta gero, zaharberriturik

**A**lkartasuna Baserritarren Kooperatiba Elkarteak 1908. urtean sortu zen, Usurbilgo eta inguruko baserritar txikia laguntzeko helburuarekin. Hau da, 2008an 100 urte bete zituen.

“Hasieran, baserritarrek eskuratzeko zailtasunak zituzten lehengaiak lortzea zen helburua. Garai berean sortu ziren kooperatiba gehienak, 8-10 urteko epean, eta herri guztietan antzeko eredu hartu zuten: elizaren ingurukoak ziren (hortik dator Cooperativa Agrícola Católica del Campo izena), udaletxearen babesa zuten, eta gehienak ‘Alkartasuna’ izena hartu zuten.

Usurbilgo Kooperatibari dagokionez, duela 25 urte hasi ziren aldaketak. Baserritarrei zuzendutako eskaintza

(ardoa, burdindegia, etab.) handitu eta biltegiak gain denda indartu zen. Gaur egun, baserritar txikia laguntzeaz gain, Alkartasuna Kooperatibak Usurbilgo biztanleria osoari zuzenduriko denda kudeatu, gasolio eta gas butano zerbitzua eskaini eta inguruko beste baserritar kooperatibekin lankidetzara jorratzen du. Azken finean, Alkartasuna Baserritarren Kooperatibak bazkide eta bazkide ez direnen esplotazioak hobetzeko zerbitzu eta ekintzak sortu eta indartzen ditu.

Azken urteotan jorratutako ildoari jarraiki, kooperatibak zabaltze prozesuan jarraitzen du: lerro berriak zabaltu, barne merkataritza sustatu...”

[www.alkartasunausurbil.com](http://www.alkartasunausurbil.com)

*web orrialdetik jasotako idatzia.*

**Javier Orbegozo**  
·ITURGINTZA  
·GASA ·BEROKUNTZA  
**659 602 789**  
Erreka-txiki 13, 3.esk USURBIL 943 37 29 37



**JON ELORZA**  
**IGELTSERITZA**  
**OROKORRA**  
**Obrak eta erreformak**  
**661 804 688**  
San Esteban 5, boxua USURBIL [jon.elorza@hotmail.com](mailto:jon.elorza@hotmail.com)

# Bukatu da akabo...

**I**gande gauean amaitu ziren aurtengo Santixabel jaiak, azken trakarekin. Iazkoaren bidetik, maskota ez zen erre. Kanpandorreaki itsatsia zegoen maskota bertan utzi zuten antolatzailleek. Gaueko 23:00etarako gutxia prest zegoen Dema plazan, argiak itzalita, inguruak herritarrez beteak, suziriak ere prest... Denak ere herriko jaietako azken ikuskizuna noiz hasiko zain. Piztu zen lehen argia hain zuzen, olagarroak berak zuena izan zen. Hortik aurrera, suziriak eta burrunba etengabe, intentsitate handiko musikaz lagundurik. Lehen eguneko suziriak eragindako beldur-giroa alde batera utzita, jaiak primeran joan dira.




ARGAZKI ETA BIDEO GEHIAGO IKUSGAI WWW.NOAUA.COM WEB ORRIALDEAN ETA GIZARTE SOZIALETAKO GURE TXOKOETAN: TWITTER, FACEBOOK ETA YOUTUBEN.






## Bideoz jaso eta Internetez zabaldu ditugu jaietako ekitaldi asko

Jaietako irudiak, gorabeherak, egitaraua... zabaltzen inoizko ahalegin handiena egin dugu NOAUA!ko erredakziotik. Gure web orrialdean (noaua.com) nahiz youtube, facebook eta twitter gizar-te sareen bitartez, jaien jarraipen zabala egin dugu. Egunero hainbat kronika egin ditugu eta jaietako ekitaldietako irudiekin osatutako bideoak ipini ditugu. Oraindik ikusgai daude. Besteak beste, hauek.



TXUPINAZO GORABEHERATSUA.



FLASH MOB DANTZA SAIDA.



HELDUEN DANBORRADA.



ERRALDOIAK DANTZAN.



HAURREN EGUNA.



HERRI KIROLAK.



AZKEN TRAKAKO IRUDIAK...

## Asier Azpiroz, Zubietako bertsolari gaztea

**O**spatu berri diren Santixabeletako bertso saioan parte hartu du Asier Azpiroz zubietarrak. Oholtza gainera igo zirenekin alderatuta, jubenil mailako bertsolari gisa definitzen du bere burua, nahiz oso gazte zela hasi zen bertsolaritzan. Gipuzkoako Txapelketan final zortzirenetarako sailkatu da.

**NOAUA!** Bertsolari jubenil moduan definitzen duzu zeure burua, baina ibilbide luze samarra egin duzu jada?

**Asier Azpiroz.** Ikastolan hasi ginen, bertso eskolara Amaia Agirre etorri zen eta lagun batzuk hasi ginen. Gero, Hernaniko bertso eskolan hasi nintzen, haiekin udaleku batzuetara joan ostean. Eskolarteko txapelketetan lehenik, eta 18 urterekin gazteen sariketan parte hartu dut gero. Inguruko gaztetxeetan ere bada kantatzeko aukera, gogoia izanez gero. Ibilbide luzea ez dut, baina gazte hasita bai.

### ASIER AZPIROZ

“Gipuzkoan zaletasuna asko dago. Bertsolari asko dago, gazteak ere piloak. Batez ere hemen inguruan”

**N. Oholtzatik jaitsita lagun giroan eta, bertsoak bota zalea zara edo ondo bereizten dituzu saioak gainerakoetatik?**

**A. A.** Nahiko ondo bereizten dut. Etxean behintzat bertsoan ez dut egin. Lagunekin, giroa izanez gero bai. Baina ez naiz bertso asko botatzen duen horietakoa. Oholtzan bai, baina hortik kanpora, Zubietan aldean nahiko garesti bertsoak, askok esango dute hori.

**N. Saritua ere izan zara?**

**A. A.** Finaletan eta bai. Algortako



EKAINEAN 12 BERTSO SAIO EGIN DITU ZUBIETAR GAZTEAK.

Abra sariketa irabazi nuen. Txapela bakarra dut. Finaletan eta dezentetan aritua naiz, eta gustura, pozik.

**N. Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan final zortzirenetarako sailkatu zara, ondo ezta?**

**A. A.** Gustura geratu naiz txapelketarekin. Lehenengo saio polita egin nuen, oso gustura. Bigarren ez oso polita. Koltxoia banuen aurretik eta sartu gara. Ekainean hamabi bertso saio egin ditut. Orain atsedean hartu nahi dut eta abuztuan berriz zezenari adarretatik heldu.

**N. Bertsolaritza biziberritzen, bertso eskolek lanketa garrantzitsua egiten dute. Zer iruditzen zaizkizu, Bota Punttuba bezalako taldeak?**

**A. A.** Halako jendeak poz handia

ematen du, bertsolaritza bizirik mantentzen dutenak baitira. Horiek dira azkenean, herrian urtean zehar, bertsoekin lotutako ekitaldiak antolatuko dituztenak. Bertso eskolak ez dira bertsolariak sortzeko bakarrik, gai jartzaileak eta bertso zaleak sortzeko bide bat da.

**N. Gipuzkoan ere bertsozaletasuna bizirik dago, ikusi besterik ez baitago zenbat ari zaren parte hartzen herrialdeko txapelketan?**

**A. A.** Zaletasuna asko dago. Bertsolari asko dago, gazteak ere piloak. Herrietan ere asko entzuten da. Batez ere hemen inguruan, Goierri inguruan bereziki, harritura geratzen naiz. Koadrila bakoitzean badira bizpahiru bertsolari, ez agian plazan aritzen direnak. Baina taberna izkinan harrapatuz gero, oso arriskutsuak dira bai.

## “Bertsolari zaharrak entzutea gustuko dut”

**NOAUA! Bertso zaletu moduan ba al duzu, erreferenterik?**

**Asier Azpiroz.** Plazan, Maialenek duen txispa hori inork ez du. Amets bertsotan elegantea da, hizketan bezala aritzen da bertsotan. Bertsolari zaharrak entzutea ere gustuko dut, gauza bat behintzat, gure aldean ondo egiten dute eta; kantatu. Ahots hobe dute.

**N. Zure etorkizuneko bertsolaritza ibilbidea nondik enfokatu erabakia duzu?**

**A. A.** Bertsotan jarraituko dudala suposatzen dut baina ez dut neure burua orain baino sartuagoa ikusten etorkizunean. Oso jende gutxirentzat dago tokia, hor goian. Ailegatuko da saio kopurua asko jaitsiko zaidan momentua.

Bertsolariak ez du bakarrik bertsotan jakin behar, jendearekin harrema-



ASIER AZPIROZ GIPUZKOAKO TXAPELKETAN ARI DA PARTE HARTZEN. EZKERRETIK HASITA, HIRUGARRENA DA ASIER.

netan izateko gaitasuna behar du. Ez da bakarrik bertso saiora joan eta abestea, jendearekin hitz egin, afaldu, abestu...

**N. Zer eman dizu bertsolaritzak?**

**A. A.** Jendaurrean egoten irakatsi dit, lagun jator asko eman dizkit eta hizkuntza ere lantzeko balio izan dit.

## Umeen Eguna antolatu zuten gurasoen “eskertza”

**E**kainaren 30an hasi ziren Santixabel jaiak, Haurren Egunarekin. Ekitaldien antolaketan burubelarri aritu zen guraso taldeak esker oneko hitz hauek argitaratu nahi ditu NOAUA! aldizkariaren bitartez. Hemen beraz, gurasoen eskertza, jaso bezala argitaratua:

“Aurtengoan Santixabelak urte hasieratik hasi ditugu guk. Seme-alabek ekarri ziguten ikastolako papertxo batean berria, umeen eguna antolatzeko gonbitea alegia. Hau ere guri tokatu behar eta jo! Eta honelakoak esanez hasi baginen ere, orain gustura gaude egindako lanarekin eta honek emandako emaitzarekin batez ere.

Eskerrak eman beharrean gaude inguruan izan ditugun laguntzaileei.

Hala nola, egunean bertan izan ditugun bolondresei, DBH3 eta DBH4-ko ikasleak, taldean ginenen familiarreko eta lagunei goizeko gin-kanako frogak antolatzen laguntzeagatik, Udarregi ikastolako Eli, Ibon eta Begoña irakasleei, umeen taldeak antolatzeagatik eta laguntzeko bolondresak topatzeagatik, Arantxa eta Enriqueri argazkiekin laguntzeagatik, Bordatxo esneki txokolata garraiatzeko marmitak uzteagatik, eta baita Iparlat, Artetxe, Barrenetxe eta Sarriegi patatak entrepresei krisi garai hauetan ere bere ekarpena egiteagatik (yogur eta natilak, zeliakoentzat kakaoa, kakaoa eta txokolata egitea eta patata poltsak).

Eskerrak asko guztiei! Zuen guztien laguntzarekin egun pasa eder bat antolatu eta gozatu ere egin baitugu gure



HAURREN EGUNEAN, INDARRAK BERRITZEN.

seme-alabekin batera. Datorren urteetan ere horrela jarrai beza.

Santixabeletako Umeen Eguna Antolatzeko Taldea”.

## Uztailerako hainbat irteera prestatu dituzte Gaztelekuan

**D**BH zikloko ikasleek asteotan hainbat ekintzatan parte hartzeko aukera izango dute, Gaztelekuaren eskutik. Hainbat irteera antolatu dituzte, beste udalerrietako Gaztelekuko kideekin egoteko aukera ematen duen “Gipuzkoa ezagutzen” egitasmoaren baitan. Abuztuan Gaztelekua itxita egongo da, iraileko ikasturte berria abiatu arte.

12-16 urte arteko gazteei zuzendutako zenbait ekintza antolatu dituzte Gaztelekuan, uztailerako. Astero DBH-ko maila bakoitzari zuzendutako ikasleentzat ekimenak izango dira. Hil honetako lehen egunotan, uztailaren 4an DBH-ko 2.mailakoak Zumaiara joatekoak ziren, bertako gazteekin egotera, “Gipuzkoa ezagutzen” programaren baitan. Udallerri desberdinetako Gaztelekuetako hezitzaile eta ikasleak biltzen dira, egitasmo honen bidez finantzaren hitzorduetan. Zumaiara azkenean ez dira joan baina bai hurrengo irteretara. Ostegun honetarako, hilaren 7rako, maila bereko ikasleekin Donostiara txangoa programatua dute, hondartzan eta piraguan ibiltzeko.

### Hartu emanetan, beste Gaztelekuekin

Datorren astean, DBH-ko 1.mailako-  
ei begira prestatu dituzten ekintzen artean, uztailaren 11n Usurbilen, 12an Zumaian, 13an Zizurkilen eta 14an Donostian izango dira, lekuan lekuko Gaztelekuetako kideekin. Gurean, tailer eta ur zein txantxa jolasetan parte hartzeko aukera izango dute. Zumaian,



GAZTELEKUA  
INAUGURATU ZENEKO ARGAZKIA.

flash-ak ikusi eta hondartzara joango dira, Zizurkilen olinpiadetan ezin hobeto pasako dute eta Donostian Urgullera igo, jolastu eta Ondarretara joko dute gero. Handik igerian irlara joatea da euren asmoa.

Uztailako hirugarren astean, DBH 3 eta 4 mailetako ikasleentzako txanda izango da. Hilaren 18an, Gaztelekuan bilduko dira hainbat jolasetan parte hartzeko eta hiru egun beranduago, Zubietara joango dira Paintball-ean jokatzera. Hilabeteko azken asterako, eta irailera arte gunea itxi aurretik, Gaztelekua garbitu eta txukuntzeko hitzordua deitu dute. Uztailaren 28an izango da, eta bi egun beranduago, hilaren 30ean ekintzetan atera dituzten argazki bilduma ikusteko geratuko dira.

### Uztailean, ekintza bereziatarako bakarrik irekiko da Gaztelekua

**G**aztelekuko ordutegia uztailan erabat aldatuko da. Bertatik ohartarazi dutenez, “uztailean zehar ekintza bereziak bakarrik egingo dira, beraz beste egunetan Gaztelekua itxita egongo da”. Baita abuztu osoan ere, irailean irekiko dute berriz, ikasturte berria hasitakoan.

Bestalde, hilabete honetarako antolatu dituzten irteeratara joan ahal izateko, gazteek gurasoen baimen idatzia beharko dutela gogorarazten dute Gaztelekitik. Gazteek txangoetara, ogitartekoa, bainujantzia eta aldatzeko arropa eramane beharko dute. Egun osoko txangoak izango dira. Oro har, goizeko 10:00etan irten eta arratsaldeko 18:00ak aldera itzuliko dira.

Informazio gehiago: 943 371 050 edo gaztelekua@usurbil.net

### Zubietako Lanbide Eskolan matrikulatzeko epea zabalik

**E**rdi eta Goi Mailako zikloetan matrikulatzeko epea uztailaren 8an amaituko da. Bulegoa, ordutegi honetan zabalduko dute egun horietan: asteleheneetik ostegunera, 9:00-14:00 / 16:00-18:00. Ostiralean goizez bakarrik, 9:00-14:00. Informazio gehiago 943 364 600 (Juanjo Barberorengatik galdetu) edo web orrialde honetan: lhusurbil.com

teilatua eta fatxadak  
**JOSE AIZPURUA UNANUE**



Obaba kalea 29 · ASTEASU

☎ 943 69 68 52 · 620 800 186

**TAXI 24h**

Jose Etxabe USURBIL

677 37 34 66

943 36 21 78



## Pilota txapelketak badu txapeldunik

**P**artida ikusgarriekin amaitu da aurtengo pilota txapelketa. Olano eta Tolosa leitzarrek nagusitu ziren jubenil mailako finalean, 22-18 Urretxu aldeko Gallurralde eta Erostarberen aurka.

Nagusien mailan, Bidegoian alde-  
ra joan dira aurtengo txapelak. Urbietza eta Galarraga nagusitu ziren finalean, Nafarroa aldeko Alegria eta Uharteren aurka. 22-14 azken emaitza.



SARI BANAKETAN, EPAILEAK, JOKALARIAK ETA ANTOLATZAILEAK.

## Gizon eta Emakumeen Pala Txapelketako garaileak



Jaien bezperan jokatu ziren final saioekin, amaitu dira gizonezkoen eta, estreinako, emakumezkoen pala txapelketak. Gurpildun aulkian jokatu ziren gomazko paleta partidekin batera, ondoko irudikoak dira, finalera heldu

ziren herritarrek. Urdaiazpiko ederrekin eta txapela buruan dutela. Emakume Palarien Txapelketan Arantxa Unanue eta Nagore Leoz nagusitu ziren; gizonezkoenean, Xabier Errasti eta Imanol Esnaola.



GURPILDUN AULKIETAN JOKATUTAKO PARTIDAK ERE IZAN ZIREN.



NAGORE LEOZ ETA ARANTXA UNANUE IZAN ZIREN TXAPELDUNAK.

**txirriStra**  
KONTSEJUZARRA 13  
943 360 466

pintxoak  
ogitartekoak  
plater konbinatuak

**TABERNA**

**LATAILLADE**  **ITURGINTZA**

GASA  
BEROKUNTZA  
MANTENIMENDUA ETA  
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Aritzitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021





## Agenda!

### Uztailak 6 asteazkena

- Itaya gazte taldearen bilera  
19:00etan Etumeta-AEK euskalte-  
gian.

### Uztailak 7 osteguna

- Pirinioetara irteera Andatza-  
rekin 19:00etan udaletxe ondoko  
lokalean bilera.

### Uztailak 11 astelehena

- Odol ematea, 18:00-20:30,  
anbulatorioan.

## Goardiako farmaziak

**Uztailak 7, osteguna**  
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Uztailak 8, ostirala**  
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Uztailak 9, larunbata**  
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Uztailak 10, igandea**  
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Uztailak 11, astelehena**  
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Uztailak 12, asteartea**  
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Uztailak 13, asteazkena**  
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Uztailak 14, osteguna**  
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

**Uztailak 15, ostirala**  
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Uztailak 16, larunbata**  
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Uztailak 17, igandea**  
Gil, Nagusia 24 Lasarte

\* Larunbatetan, Usurbilgo bi farmaziak  
irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ  
Aizpurua, Latxunbe Berri, 11, Hernani  
Telefono zenbakia: 943 336 077.

## Astelehenean odol-ematea herriko anbulatorioan

**U**surbilgo Odol Emaileen Elkartek odola emateko deia egin du. Jaien ondoren bizimoduak aurrera jarraitzen du eta Odol Emaileek maiz esan izan duten moduan, "gure ekintza honetan ezin dugu atsedenik hartu". Ohi bezala, anbulatorioan egingo da odol ematea, arratsaldeko 18:00etatik 20:30era.



18:00ETATIK 20:30ERA IZANGO DA  
ODOLA EMATEKO AUKERA.

Astelehenerako deialdia bidaltzearekin batera, "Odol Emaileen Elkartetik gogoratu nahi dugu Mari Karmen Ayerza, ekainaren 22an hil zen gure talde kidea".

Esan bezala, datorren astelehenean, uztailaren 11n, odol-ematea izango da Usurbilen honako ordutegian: arratsaldeko 18:00etatik 20:30era, herri-

ko anbulatorioan.

Herritar guztiei irekia dago deialdi hau. 18-66 urte arteko adina eta osasun arazorik ez izatea dira gutxieneko baldintzak.

Odol-ematean zehar, medikuak eta erizainak izango dira arazo edo kezka guztiak argitzeko.

## Garbiñe Errekondo, Gipuzkoako gobernuan

**F**oru Aldundiko gobernu berria launa gizon-emakumez osaturik egongo da. Tartean, usurbildar bat dago, Foru Administrazio eta Funtzio Publikoaz arduratuko den diputatua, Garbiñe Errekondo. Zuzenbidean lizentziatua, Foru Aldundiko langilea da 1981. urteaz gozotik. HBko zinegotzi izan zen Usurbilen eta Gipuzkoako batzarkide ere izan zen 90eko hamarkadan.

## Joxe Antonio Altunari omenaldia

**1**6 urtez Usurbilgo alkate izan zen Joxe Antonio Altuna omendua izango da, datorren uztailaren 17an. Usurbilgo Ezker Abertzalea omenaldi herrikoia prestatzen ari zaio. Eguerdiko 12:00etan hastekoa da Sutegin baina ekitaldi nagusia Dema plazan burutuko da. Herritarrei omenaldian parte hartzea deitu nahi die Usurbilgo ezker abertzaleak.

Zuen  
publizitatea  
hemen

943 360 321  
publizitatea@noaua.com

**izAgirre**

ELEKTRIZITATEA

943 36 50 95-609 06 81 11  
izagirreletrizitatea@hotmail.com  
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

**JUANTXO**  
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8  
943 370 008

Andoni Errazkin

**Xukin**  
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

**USURBIL**

663 08 76 71 • 943 24 34 65





**ALKARTASUNA**  
Usurbilgo Baseritarraren Kooperatiba

T 943 361 114  
alkartasuna@usurbil.com

## Egoitza berria jaio da

ZATOZ EZAGUTZERA  
**INAUGURAZIOA**  
uztailaren 16an



Atallu Industrialdea, 6 - 26. lokala

# EDERTU ZAITEZ!

**Loli Lizarralde**  
Ileapaindegia • Estetika Zentroa

**BERRIA!**  
**KERATINAKO TRATAMENDUA**  
Ile-kizkurra leuntzen du,  
kizkurdura kentzen du,  
ilearen hidratazioa, distira asko  
30 urte azpikoek %10 deskontua

**LEHEN**  
**ORAIN**

Zubiaurrenea, 5B USURBIL 943 361 971

**Enar**  
ESTETIKA

munalurra 2, Usurbil  
943 571 680

Depilozal

**3x2**

**FOTODEPILAZIOAN**  
eta bonu bereziak estetika arloan

*Maite eta Ane*  
ILEAPAINDEGIA

*Artzabal*

**JUBILATUENTZAT**  
**AUKERA ONENA**

artzabal baserria 626 603 600

Allesi Brendo

WELLA

**INTZA**  
ILEAPAINDEGIA  
ESTETIKA ZENTROA

Kalitatezko produktuekin estilismoa eta estetika lantzen ditugu  
Egun osoa irekita! Nagusia 8, USURBIL 943 36 36 41

**Elexpe**  
ileapaindegia

Betileen tintaketa  
eta permanentea  
Estetika • Tatuaiak  
Zulikako eta Etzandako  
Solariuma

Muna Lurra 12. © 943 370 462

GOLDWELL  
ELUMEN

**mistoa**

Kolorazioetan teknika  
berriak eta iraunkorrak

Zubiaurrenea 4. © 943 381 951